

1 Irakurri furgonetaren deskribapena eta erantzun.

Aurrekoan Baionako furgoneta, karabana eta autokarabanen azokan egon ginen. Furgonetek harritu ninduten gehien, hain toki txikian zenbat gauza dauden ikusita! Furgoneta batzuk etxeen modukoak ziren: oheak, sukaldea, komuna, armairuak... denetarik zeukaten! Berogailua ere bazuten.

Furgonetaren aurrealdea edozein autoreen aurrealdea bezalakoa da. Furgoneta

gidatzeko, pedalak, bolantea eta palanka erabiltzen dituzte. Furgonetek lau gupil dituzte, baina autoen gupilak baino handiagoak eta zabalagoak izan ohi dira; garestiagoak ere bai.

Aurreko aldean, gidariarentzako eta lagunarentzako eserleku bi dituzte. Eserlekuak biratu egin daitezke, eta atzera begira jarri. Eserleku horiekin eta atzealdean dauden beste bi eserlekuekin, egongelatxo atondu dezakegu. Egongelan bertan, sukalde txiki bat ere badago, sua eta harraska egon ohi dira bertan. Furgoneta dotoreenak komun txiki bat ere badute, dutxa eta guzti.

Egongela logela bihurtzen da eta bi lagunak egin dezakete lo bertan. Nahi izanez gero, goiko sabaia altxatuta, beste pertsona bik ere egin dezakete lo.

• Nolako gupilak ditu furgonetak?

• Zer ezaugarri dute eserlekuek?

• Zer gela ditu furgonetak?

• Non egiten da lo?
